# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1933**

**18/2008 FORU DEKRETUA, martxoaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretua aldatzen da. Foru dekretu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiari buruzkoa da. Azken horrek bizitzaren edo baliaezintasunaren banakako kontratuei aplikatuko zaien zerga konpentsaziorako bitartekoak ezartzen ditu.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak berrikuntza garrantzitsuak sartu zituen kapital higigarrien etekinen inguruan; besteak beste, bizitzaren eta baliaezintasunaren banakako kontratuek eragindako etekinak. Aldaketa horiek direla eta, era horretako kontratuek eragindako etekinak lehen zerga oinarri orokorraren zati baziren, orain aurrezkiaren zerga oinarri dira; halaber, higikorren kapitalak eragindako gainerako etekin gehienak, higiezinen kapitalaren zenbait etekin eta ondarearen ondasunak eskualdatzetik eragindako ondare irabaziak eta galerak. Horiei denei % 18ko tasa finkoa ezarriko zaie. Gainera, % 100etik beherako integrazio koefizienteak, kapital moduan jasotzen diren etekinei irregulartasun kasuetan aplika dakizkiekeenak, kendu egingo dira.

Aldaketa horiek guztiak oinarri, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren Hamaseigarren Xedapen Iragankorrak bizitzaren edo baliaezintasunaren banakako kontratuei ezarriko zaien zerga konpentsazioa ezartzen du, eta arautu egin behar direla dio zergadunek zerga konpentsazio hori jaso ahal izateko prozedura eta baldintzak, alegia, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako bizitzaren edo baliaezintasunaren banakako kontratuek eragindako kapital geroratua jasotzen duten zergadunek konpentsazio hori jaso ahal izateko prozedura eta baldintzak, baldin eta foru arau horrek xedatutako zerga araubideak etekinoi onura gutxiago eragiten badie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauak xedatutako araubideak baino. Horiek horrela, Hamaseigarren Xedapen Iragankorrak ezartzen du 2006ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primak baino ez direla kontuan hartuko; baita kontratuaren jatorrizko polizak jasotako prima arruntak, data horren ondoren ordaindutakoak, ere.

Foru dekretu honek zerga konpentsazioaren zenbatekoa zehazteko baldintzak eta prozedura ezartzen ditu. Konpentsazioa gauzatuko da kuotari zati bat kenduta. Kuota ezartzeko, berriz, bide bat ezartzen da, zeinaren bidez kalkulatu daitekeen 3/2007 Foru Arauak bizitza edo baliaezintasun aseguruetarako tratamendua aplikatzetik zergadunari onurarik ekarriko ez dion kopurua, 35/1998 Foru Arauak xedatutakoa aplikatuta lortutako kopuruarekin alderatuta, betiere 2006ko zergaldia kontuan izanda.

Zerga konpentsazio hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegira erantsita sartuko da zergaren sistemara. Horretarako, beste xedapen iragankor bat sortuko da.

Zerga-Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, ondokoa

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1933**

**DECRETO FORAL 18/2008, del Consejo de Diputados de 18 de marzo, que modifica el Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, de Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, para el establecimiento del mecanismo de compensación fiscal aplicable a los contratos individuales de vida o invalidez.**

La Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, introdujo importantes novedades en el ámbito de los rendimientos del capital mobiliario, y entre ellas, en el de los rendimientos derivados de los contratos de seguro individuales de vida o invalidez. En virtud de estos cambios, los rendimientos derivados de este tipo de contratos pasan de estar integrados en la base imponible general a constituir base imponible del ahorro, junto con la mayor parte del resto de los rendimientos del capital mobiliario, determinados rendimientos del capital inmobiliario y con las ganancias y pérdidas patrimoniales derivadas de transmisiones de elementos patrimoniales, y tributar todo ello a un tipo fijo del 18 por 100. Estos cambios se completan con la supresión de los coeficientes de integración inferiores al 100 por 100, aplicables a los supuestos de irregularidad en las percepciones en forma de capital.

Con motivo de tales modificaciones, la Disposición Transitoria Decimosexta de la citada Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, establece una compensación fiscal aplicable a los contratos individuales de vida o invalidez, remitiendo a desarrollo reglamentario la determinación del procedimiento y condiciones para la percepción de esta compensación fiscal por aquellos contribuyentes que perciban un capital diferido derivado de un contrato individual de vida o invalidez contratado con anterioridad a 1 de enero de 2007, en el supuesto de que la aplicación de régimen fiscal previsto en la citada Norma Foral para dichos rendimientos le resulte menos favorable que el establecido en la normativa anterior, esto es, en la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. A estos efectos, la Disposición Transitoria Decimosexta establece que se deben tener en cuenta solamente las primas satisfechas hasta el 31 de diciembre de 2006, así como las primas ordinarias previstas en la póliza original del contrato satisfechas con posterioridad a dicha fecha.

El presente Decreto Foral establece las condiciones y el procedimiento para determinar el importe de la compensación fiscal. Ésta se materializa en forma de una deducción en la cuota, para cuya determinación se establece una mecánica que permite cuantificar el resultado desfavorable para el contribuyente de la aplicación del tratamiento previsto para los seguros de vida o invalidez en la Norma Foral 3/2007, respecto del resultado que hubiese arrojado la aplicación de lo previsto en la Norma Foral 35/1998, en su redacción aplicable al período impositivo 2006.

Esta compensación fiscal se incorpora a la sistemática del Impuesto a través de su adición al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas mediante la creación de una nueva Disposición Transitoria.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuaren bidez onartua, aldatzea.

Abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartzen duenari, beste xedapen iragankor bat erantsiko zaio, seigarrena hain zuzen ere, eta horrela idatziko da:

"Seigarrena. Bizitzaren edo baliaezintasunaren banakako kontratuei aplikatuko zaien zerga konpentsazioa.

Bat. Ondoko hauek izango dute xedapen honetan arautako kuota osoaren kenkarirako eskubidea: 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergalditik aurrera aurrezkiaren zerga oinarrian kapital geroratu moduan etekinak sartu dituzten zergadunak. Etekin horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 39.1. a) artikuluak aipatzen dituenak dira eta 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako bizi edo baliaezintasun aseguruetatik datoz. Halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluak eta Hamargarren Xedapen Iragankorrak jasotako integrazio ehunekoak -% 60 eta % 25 xedatzen ditu 38.2. b) artikuluak, eta % 25, berriz, Hamargarren Xedapen Iragankorrak- ezarri zaizkie.

Bi. Hau da kenduko den zenbatekoa: aurreko paragrafoan jasotako etekin garbien kopuruak elkarri integratzetik eta konpentsatzetik sortutako saldo positiboari % 18ko tasa ezarrita sortutako kopuruaren eta etekinok aurreko paragrafoan adierazitako ehunekoak ezarrita likidazio oinarri orokorrean sartzetik lortuko litzatekeen kopuruaren arteko alde positiboa.

Hiru. Ondokoa izango da aurreko paragrafoan aipatutako kuota osoaren kopuru teorikoa:

a) Aurreko bat zenbakiko paragrafoak jasotako etekinak elkarri integratzetik eta konpentsatzetik lortutako saldoa huts edo negatiboa bada, behin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 38.2. b) artikuluan eta Hamargarren Xedapen Iragankorrean jasotako integrazio ehunekoak ezarri eta gero, kuota osoaren zenbateko teorikoa huts izango da.

Aurreko bat zenbakiko paragrafoak jasotako etekinak elkarri integratzetik eta konpentsatzetik lortutako saldoa positiboa bada, behin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 38.2. b) artikuluan eta Hamargarren Xedapen Iragankorrean jasotako integrazio ehunekoak ezarri eta gero 2006ko zergaldian, kuota osoaren zenbateko teorikoa ondoko hau izango da: likidazio oinarri orokorrak eta arestian adierazitako saldo positiboak batera egiten duten kopuruari urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 77.1 artikuluan xedatutakoa ezartzeagatik sortutako kuotaren eta likidazio oinarri orokorrari artikulu horretan xedatutakoa ezartzeagatik sortutako kuotaren alde positiboa.

Lau. Aurreko hiru zenbakiko paragrafoak jasotako saldoa zehazteko, berriz, abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta Hamargarren Xedapen Iragankorrean jasotako integrazio ehunekoak baino ez dira ezarriko; hau da, integrazio ehuneko horiek 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primei dagokien etekin garbiari ezarriko zaizkio; baita data horren ondoren ordaindutako primei ere, baldin eta aseguru kontratuaren jatorrizko polizak jasotako prima arruntak badira.

Kapital geroratuaren aseguru kontratuaren prima bakoitzari etekin osoaren zein zati dagokion zehazteko, etekin osoa bider zatiketa eragiketa honetatik irtengo den haztapen koefizientearen emaitza hartuko da kontuan:

- Zenbakitzailea eragiketa hau eginda lortuko da: kasuan kasuko prima bider jaso beharrekoa jaso arte prima hori ordaindutako urte kopurua.

- Izendatzailea eragiketa hau eginda lortuko da: prima bakoitza bider jaso beharrekoa jaso arte prima hori ordaindutako urte kopurua. Biderketa eragiketa horretatik lortutako produktu guztien batura izango da izendatzailea.

DISPONGO:

Artículo único.- Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre.

Se añade una Disposición Transitoria, la Sexta, al Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que tendrá la siguiente redacción:

"Sexta. Compensación fiscal aplicable a los contratos individuales de vida o invalidez.

Uno. Tendrán derecho a la deducción de la cuota íntegra regulada en esta disposición los contribuyentes que en los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2007 integren en la base imponible del ahorro rendimientos derivados de percepciones en forma de capital diferido a las que se refiere el artículo 39.1.a) de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, procedentes de seguros de vida o invalidez contratados con anterioridad a 1 de enero de 2007 y a los que les hubieran resultado de aplicación los porcentajes de integración del 60 y 25 por 100 previstos en el artículo 38.2.b) y del 25 por 100 previsto en la Disposición Transitoria Décima de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Dos. La cuantía de esta deducción será la diferencia positiva entre la cantidad resultante de aplicar el tipo de gravamen del 18 por 100 al saldo positivo resultante de integrar y compensar entre sí el importe total de los rendimientos netos previstos en el apartado anterior, y el importe teórico de la cuota íntegra que hubiera resultado de haber integrado dichos rendimientos en la base liquidable general con aplicación de los porcentajes indicados en el apartado anterior.

Tres. El importe teórico de la cuota íntegra a que se refiere el apartado anterior será el siguiente:

a) Cuando el saldo resultante de integrar y compensar entre sí los rendimientos a que se refiere el apartado Uno anterior, aplicando los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la Disposición Transitoria Décima de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en su redacción aplicable al período impositivo 2006, sea cero o negativo, el importe teórico de la cuota íntegra será cero.

b) Cuando el saldo resultante de integrar y compensar entre sí los rendimientos a que se refiere el apartado Uno anterior, aplicando los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la Disposición Transitoria Décima de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en su redacción aplicable al período impositivo 2006, sea positivo, el importe teórico de la cuota íntegra será la diferencia positiva entre la cuota resultante de aplicar a la suma de la base liquidable general y del saldo positivo anteriormente señalado, lo dispuesto en el artículo 77.1 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, y la cuota resultante de aplicar lo señalado en dicho artículo a la base liquidable general.

Cuatro. Para la determinación del saldo a que se refiere el apartado Tres anterior, solamente se aplicarán los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la Disposición Transitoria Décima de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, a la parte del rendimiento neto que corresponda a primas satisfechas hasta el 31 de diciembre de 2006, aplicándose también a las posteriores a esta fecha, cuando se trate de primas ordinarias previstas en la póliza original del contrato de seguro.

A efectos de determinar la parte del rendimiento total obtenido que corresponde a cada prima del contrato de seguro de capital diferido, se multiplicará dicho rendimiento total por el coeficiente de ponderación que resulte del siguiente cociente:

- En el numerador, el resultado de multiplicar la prima correspondiente por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

- En el denominador, la suma de los productos resultantes de multiplicar cada prima por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

Bost. Erakunde aseguratzaileak zergadunari etekin garbien kopurua jakinaraziko dio, hain zuzen ere, prima bakoitzari dagokion bizitza eta baliaezintasun aseguruetatik datozen etekinak, kapital geroratu moduan emandakoak. Etekinok aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulatu dira, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 38.2. b) artikuluan eta Hamargarren Xedapen Iragankorrean jasotako ehunekoak ezarri zaizkie.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldiei ezarriko zaie.

Bigarrena. Gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau ezartzeko eta aurrera eramateko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 18a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Cinco. La entidad aseguradora comunicará al contribuyente el importe de los rendimientos netos derivados de percepciones en forma de capital diferido procedentes de seguros de vida e invalidez correspondientes a cada prima, calculados según lo dispuesto en el apartado anterior y con la aplicación de los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la Disposición Transitoria Décima de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, y será de aplicación a los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2007.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2008.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**1937**

**22/2008 FORU DEKRETUA, martxoaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Gesaltza-Añanako Haran Gazia ikusteko foru aldundiak antolatutako bisitaldi gidatuen eta bertan salduko diren salgaien prezio publikoak onartzen dira.**

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 64/1989 Foru Arauak (zati batean azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatua) Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen lege araubidea arautzen du.

Horregatik, 24, 25, 26 eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Gesaltza-Añanako Haran Gazia ikusteko antolatutako bisitaldi gidatuen eta bertan salduko diren salgaien prezio publikoak onartzea proposatzen da.

Horrenbestez, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Gesaltza-Añanako Haran Gazia ikusteko antolatutako bisitaldi gidatuen eta bertan salduko diren salgaien prezio publikoen gaineko araudia onartzea, artikulu hauetan xedatutakoaren arabera:

1. artikulua.- Ordaindu beharreko jarduera.

Gesaltza-Añanako Haran Gazia ikusteko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatutako bisitaldi gidatuen sarrerak eta bertan salduko diren salgaiak ordaindu beharreko jarduerak dira.

2. artikulua.- Hona hemen ordaintzera behartuak.

Aurreko artikuluak aipatzen duenari jarraituz, salgaiak erosi edo Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatu edota gauzatutako jardun eta zerbitzuetatik onura ateratzen duten horiek egongo dira ordaintzera behartuta.

3. artikulua.- Zenbatekoa.

Prezio publikoak dekretu honen ondorengo lerroetan zehazten dira. Hona hemen:

1) gidatutako bisitak

1.1. Helduak: 4 euro

1.2. Taldeak: 3 euro lagun bakoitzeko

1.3. Pentsiodunak: 2 euro

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**1937**

**DECRETO FORAL 22/2008, del Consejo de Diputados de 18 de marzo, que aprueba los precios públicos por las visitas guiadas y por la venta de los bienes suministrados al público en el recinto del Valle Salado de Salinas de Añana.**

La Norma Foral 64/1989 sobre Tasas y Precios Públicos modificada en parte por la Norma Foral 33/1998 de 23 de noviembre, establece en su articulado la regulación del Régimen Jurídico de las tasas y precios públicos de las Entidades que componen el Sector Público Foral del Territorio Histórico de Alava.

En virtud de ello y conforme a lo dispuesto en sus artículos 24, 25, 26 y 27, se propone la aprobación de los precios públicos por las visitas guiadas y por la venta de los bienes suministrados al público en el recinto del Valle Salado de Salinas de Añana.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Primero. Aprobar la normativa de Precios Públicos por las visitas guiadas y por la venta de los bienes suministrados al público en el recinto del Valle Salado de Salinas de Añana, en base al siguiente articulado:

Artículo 1.- Actividad sujeta

Constituye actividad sujeta la venta de entradas por visitas guiadas y de los bienes suministrados al público en el recinto del Valle Salado de Salinas de Añana, realizadas por el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Articulo 2.- Sujeto obligado al pago

Son sujetos obligados al pago quienes adquieran los bienes, o se beneficien de los servicios o actividades, prestados o realizados por el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes, a que se refiere el artículo anterior.

Artículo 3.- Cuantía

La cuantía del precio público regulado por este Decreto es la fijada en la tarifas contenidas en los apartados siguientes:

1) Visitas guiadas

1.1. Por visita adulto: 4 euros

1.2. Por visita grupos: 3 euros/persona

1.3. Por visita pensionista: 2 euros